

GIPUZKOAKO NATUR INTERESEKO GUNEAK

A. Oilarra

Joan den urriaren azkeneko astean, hauteskunde-kanpainaren azkeneko astean alegia, Gipuzkoako Foru-Aldundiak “Estudio de los espacios de interes naturalistico de Guipuzcoa” izeneko txostena aurkeztu zuen prentsaurrean.

PRENTSAURREKOA konbokatua izaniko egunaz at (Txostena berdin-berdin aurkez zitekeen astebete ge-roago hauteskundeak igaro ondoren aktualitate-izpirik galdu gabe), beste gauza batek kezkatu ninduen egun hartan; euskararen alde omen dauden gure agintariek geure hizkuntzaren

erabilpen publikorako duten jarrerak alegia. Mahakideak euskaldunak izanik gaztelania hutsez aritu ziren guk euskaraz galderak egin arte. Gure aldizkaria ez da, akaso, horrelako salaketak egiteko tokirik aproposena, baina egun hartan hartutako minak horretara bultzatzen gaitu.

Lot gakizkion hariari. Gipuzkoako Hirigintza, Arkitektura eta Ingu-

rugirorako diputatuak, J. J. Zubimendi jaunak, bere sailak bultzatutako Gipuzkoako naturgune interesgariak definitzeko eginiko azterketa aurkeztu zuen. Lehenago ere horrela-



NATUR BALIO HANDIKO GUNEAK

1. Monpaseko itsasertza eta talai-punta	11,2 Ha.
2. Platak faro aldeko labarrak	3,0 Ha.
3. Jaizkibeleko itsasertza	18,0 Ha.
4. Artolako erreka	1,5 Ha.
5. Agerdiko erreka	1,8 Ha.
6. Burnizko erreka	1,6 Ha.
7. Martixko erreka	1,8 Ha.
8. Munoandiko erreka	2,7 Ha.
9. Iturrainek erreka	1,1 Ha.
10. Marmairuko erreka	11,0 Ha.
11. Martiko erreka	1,2 Ha.
12. Malarrana erreka	1,8 Ha.
13. Bidasoako irlak	29,5 Ha.
14. Saturrarango labarrak	23,1 Ha.
15. Mendata lurmuturra eta Zumaia bitarteko itsasertza	86,0 Ha.
16. Santiagoko hondartza	19,5 Ha.
17. Izarraizko haitzak	203,2 Ha.
18. Koskollo erreka urtegia	1,2 Ha.
19. Mendizorrotzeko erreka	3,2 Ha.
20. Atxulondo	1,0 Ha.
21. Ernio	45,6 Ha.
22. Adarra	110,0 Ha.
23. Usabelartzako zoikaztegia	1,2 Ha.
24. Leizarango ibaia	52,2 Ha.
25. Endarako sakana	72,0 Ha.
26. Aiako Harria	27,0 Ha.
27. Murumendi	1,7 Ha.
28. Urgimendiko haritzia	124,7 Ha.
29. Kurutzeberri	28,5 Ha.
30. Orkatategi	197,2 Ha.
31. Txindoki	188,2 Ha.
32. Aizkoate, Intzartu eta Itaundieta	99,6 Ha.
33. Aizkorri	509,1 Ha.
34. Gazteluberri	2,6 Ha.
35. Aratz	23,6 Ha.
36. Arbarraingo zoikaztegia	1,5 Ha.
37. Pardarri	65,7 Ha.
38. Akaizko basoa	195,0 Ha.
Barrutiak	
A. Jaizkibel	1.875,0 Ha.
B. Aiako Harria	550,0 Ha.
C. Izarraitz	1.800,0 Ha.
D. Aizkorri	12.574,0 Ha.
E. Aralar	3.400,0 Ha.

ko azterketak egin zirela esan zuen, baina inoiz ez zirela urrats horretatik aurrera pasa. Bere sailaren asmoa gune interesgarriak definitu ondoren babesteko neurriak proposatzea eta hartzea izango litzateke.

Segidan Jesus Elozegi biologo ezagunak, azterketa burutu duen lantaldearen izenean, erabilitako erizpideak azaldu zituen. Hasiera batean orain arte eginiko azterketak abiapuntu legez erabili zituztela esan zuen, eta gainera zenbait adituren eritzia ere eskatu dute. Eginiko aukeraketak, zenbait toki agertzen ez delako -Diputazioaren Laurgain parkea aipatu zuen- batzuk harritu egin-



go zituela azpimarratu zuen, baina hori erabilitako erizpideen ondorio izan da. Erizpide horiek dena den, eztabaidagarri direla seinatu zuen bestetik. Gainera aukeratutako gune gehienak azalera txikia dute eta hori Gipuzkoan dagoen giza presioaren eragina dela esan zuen.

Bestalde, beste bost eremu handiago definitu dira (Jaizkibel, Aiako Harria, Izarraitz, Aizkorri eta Aralar); gune txikiagoak biltzen dituztenak eta tratamendu berezia behar dutenak.

Babesteko guneak aukeratzeko unean erabili duten lehenengo erizpidea, hau baztertzaila izan delarik, hiriguneak eta lur urbanizagarriak kontutan ez hartzea izan da. Beste erizpideak hauek izan dira:

- Jatorrizko ekosistemen lagin adierazgarriak izatea
- Landaredi eta faunaren kontserbazio-maila
- Formazio geologiko baliotsuak, ohizkanpokoak edo mehatxatuak egotea.
- Interes paisajistiko handia.
- Interes didaktikoa.
- Arriskutan egotea.

Erizpide hauen arabera 38 gune definitu dira, guztira 4.823,2 hektarea hartzen dituztelarik. Gainera lehen aipatu ditugun eta parke modukoak izan daitezkeen bost barrutiak daude, guztira 20.205 hektarea hartzen dituztelarik.

ASKI DA!

Nahikoa da bai. Gure zenbait agintarik euskararekiko erakusten duten axolagabekeriaz, mesprezuaz akaso, nekaturik gaude. Euskararen aldeko borrokan urtetan dihardugun euskalzaleok, gure lanak ezertarako balio ote duen galdetzen hasi gatzazkio geure buruari. Irteerarik ez duen kalearen pareta burukadaz botatzen saiatzen ari ote gara? Basamortuko dunetako hondar-aleen artean ale jakin eta berezi bat bilatzen ari ote gara? Maiz, horrelaxe dirudi bederen, eta etsipenari kasu eginez amore emateko gogoia sartzen zaigu.

Euskararen aldeko hitz eder handiak esaten dituzten gure agintari askoren eguneroko praktikak Goizuetako Trabuko izenekoari buruzko bertsoak dioena parafraseatzeko beta ematen dit: "Hitzak ederrak, ekintzak faltsu" alegia.

Zertara datorren erretolika hau? Joan den urriaren 23.an Gipuzkoako Foru-Aldundiko J. J. Zubimendi diputatu jaunak emaniko prentsaurrekoan gertatutakoa du oinarritzat. Prentsaurrekoa Gipuzkoako natur intereseko guneei buruzko txosten bat aurkezteko egin zen. Parte hartu zuten bi hizlariak, diputatu jauna eta azterketa egin duen biologoetako bat, euskaldunak ziren. Hala eta guztiz ere, aurkezpen osoa gaztelania hutsez izan zen eta euskaraz neuk galderak euskaraz egin nizkienean hasi ziren, jakin banekielako biak euskaldunak zirela. Izan ere, hori jakin izan ez banu, gaztelaniaz egingo nizkiekeen, akaso. Gainera, bertara joan gineno emandako txosten moduko informazio-liburuxka ere gaztelaniaz zegoen, guneen izenak izan ezik. Eta euskaraz zegoen apurra, lotsagarria zen; ortografi akatsez (Aiako-arria, Aitzgorri, Izarraitzko eta Aitzkoate) beterik bait zegoen.

Zubimendi jauna: han geunden euskaldunok (nahikotxo ondorengo galderetan ikusi zenez) errespetu-apur bat gehiago merezi genuela uste dut. Prentsaurreko osoa euskara hutsez izatea ez dut eskatzen, elebiduna izatea bai gutxienez.

Inaki Irazabalbeitia

helburu kontserbazionista erabili da; daukagun apurra gorde besterik ez. Ez da interesgarri izan daitezkeen zona edo guneen berreskurapena planteatu; Zarauzko padura esaterako¹. Bestetik eta egun munduan gune babestuak planteatzeko unean, kanpo-erasoen aurrean koltxoi moduan jokatuko duten zonak ere definitzen dira (*buffer zone* ingelesez). Proiektu honetan ez da horrelakorik egin eta nere irudiz, gune babestuak oso txikiak izanik (1-2 Ha bitartekoak asko) derrigorrezkoa da koltxoi-zonak definitzea. Eta azkenik, naturaren babesarako joera berriei eutsiz, egungo paisaia konfiguratu duen ohizko nekazaritza eta abeltzantza etorkizuna kontutan ez hartzea oker dagoela uste dut. Adibide bat ipin dezagun. Gaur egun, Britainia Haundiko ohizko paisaia (landare-hesiz inguratutako soro eta zelaia eta guztien artean sakabanatutako basotxoak)

Balorazio moduan

Gipuzkoako Foru-Aldundiak Gipuzkoaren zein zatik babestea merezi duen definitzea oso egokia iruditzen zaigu eta are egokiagoa babeserako neurriak azkar hartzen badira. Izan ere, Gipuzkoa egoera negargarrian dago naturaren babesaren ikuspegitik, EZTren 13. aleko eranskinen salatu guneenez. Dena den eta nere aburuz, motz gelditu da babestu behar diren guneen aukeraketa. Erizpide minimalistak erabili direla uste dut.

Hiru puntutan gelditu direla motz iruditzen zait. Lehenik,

galtzen ari dira nekazal teknologia berriaren ondorioz, bertako ekosistema aldatzen ari delarik. Aldi berean, lurzorua txirotzen ari da (gero eta ongarri mineral gehiago behar dute ekoizpenari eusteko) eta animalia eta landare-espezia askok bizitzeko arazoak dituzte. Britainiarrak oso kezkatu daude "traditional British landscape" izeneko desagertzen ari delako. ■■■

¹ Hemen ohar bat egin nahi dut; Leizaran aipatu bait zen prentsaurrekoan. Denok dakigu jakin, oraingo egoeran errekak eta bere inguruek (haranaren hondoak alegia) bakarrik dutela interes ekologiko berezia; mendia birlandatutako pinuz josita bait dago. Berreskurapen ekologikozko politika egokia planteatuz, etorkizunean (25 bat urte barru) Leizaran, erabat, Gipuzkoako parke naturalik nagusia izan daitekeela ezin da bestetik ukatu. Horrelako adibide asko dago munduan. Politikoei epe motzeko etekina aukeratu dute ordea.

